

## Alain Sanchez Ruiz-ek bere tesia irakurri du

2014/04/07

Apirilaren 3an, eguerdiko 12:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Alain Sanchez Ruiz Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Polo Garaiako Auditorioan. Tesiaren izenburua Design and analysis of high power conversion structures for medium voltage systems and fundamental output frequency eta tesi zuzendaria: Gonzalo Abad. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen eta Nazioarteko Doktore aipamena ere.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Frede Blaabjerg (Aalborg University) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Guillaume Gateau (INPT – ENSEEIHT Toulouse) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Javier Chivite Zabalza (Ingeteam Technology, Zamudio) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Igor Baraia Zubiaurre (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.
- Idazkaria: Jon Andoni Barrena Bruña (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Drive klasikoen erabilera potentzi eta abiadura altuko sistemetan, hauek efizientzia, erabilitako espazio eta kostuan lehiakorrek ez izatea ekartzen du. Direct drive-n erabileraz (erreduktore barik), karakteristika hauek nabarmen hobetzen dira. Tesi hau, potentzia handiko eta tentsio ertaineko bihurgailu elektroniko topologia, modulazio eta kontrolean oinarritutako ikerketa da, irteerako frekuentzia altuetara ailegatzeko asmoarekin (direct drive-n).



Alain Sanchez Ruiz-en tesia